

PROZESUKAKO KUDEAKETA

NOIZ EMANGO DEN	NON	INSKRIPZIORAKO INFORMAZIOA
Maiatzaren 20 eta 21ean, eta ekainaren 17 eta 18an	Santutxu-Solokoetxe Osasun Zentroan	Maiatzaren 08n

IRAUPENA	PARTE-HARTZAILEEN KOP.	ORDUTEGIA
20 ordu (ikastaroa) + 5 ordu (praktika pertsonala, 2. eta 3. saio presentzialen artean)	15	09:00etatik 14:00etara

NORENTZAT:

Prozesukako kudeaketan diharduten profesional sanitario, pertsonal tekniko eta erdi-mailako arduradunentzat.

HELBURUAK:
OROKORRA:

Osakidetza pertsonalak zerbitzu-erakundeetako prozesukako kudeaketaren oinarritzko funtsak ezagutzea; osasun-erakunde bateko kudeaketa prozesuetara orientatzeko zer behar den, eta nola aplikatzen den prozesuen fitxak betetzean.

ESPEZIFIKOAK:

- Kalitatearen eta etengabeko hobekuntzaren funtsezko kontzeptuak ezagutzea.
- Prozesukako kudeaketaren funtsezko kontzeptuak ezagutzea, Osakidetza kalitate-sistemen eta kudeaketa-ereduen eremuan.
- Erakunde bateko prozesuak identifikatu eta sailkatu ondoren, prozesuen mapak egitea.
- Prozesuak deskribatzeko metodologia ezagutu eta aplikatzea.
- Profesionalak sentibilizatzea erakunde prozesuetara orientatzeko egin behar den antolamendu-aldaketarekiko: zereginen arabera egituratik prozesuetan oinarritutako antolamendura.

EDUKIA:

- I. atala:** Zer da prozesukako kudeaketa?
Kalitatearen kontzeptua
Prozesuen ikuspegia
Kudeaketa-sistema: erakundeko prozesuen eskema.
- II. atala:** Prozesuak identifikatu eta sailkatzea
Prozesuaren definizioa
Prozesuen sailkapena
Erakunde bateko prozesuen mapa
- III. atala:** Prozesuen deskribapena
Prozesuaren misioa eta helburua
Prozesuaren norainokoa eta mugak

Prozesuaren arduradura eta prozesua kudeatzeko taldea
Interes-taldeak. Interakzioen kudeaketa
Prozesuaren dokumentuak eta erregistroa

IV. atala: Prozesuak egonkortzea eta hobetzea.
PDCA zikloa etengabeko hobekuntzarako
Prozesuaren neurketa-adierazleak

Konklusioak

Prozesukako kudeaketak zer muga dituen pertsonen ezagutza oinarritzen diren erakunde konplexuetan

METODOLOGIA:

- Lehenengo bi saio presentzialetan: kontzeptuak ikasleen gogoeta aktibo batez landuko dira, maieutika erabiliz ikasmetodologia gisa; horrez gain, esperientzia oinarritutako talde-laneko dinamikak planteatuko dira, ikasitakoa benetako egoerarekin lotu eta aplikatzeko.
- Banakako praktika, tutorearekin eta posta elektronikoz: ikasitako kontzeptuak aplikatu beharko dituzte, egoera bat planteatuta edo benetako egoera bat hautatuta; bi lan-mota egin beharko dituzte: prozesuaren mapa bat eta prozesu baten deskribapena (ikus, beharago, praktikaren kronograma).
- Azkeneko bi saio presentzialetan: egindako lana bateratuko da, eta gogoeta egingo, pertsonen ezagutza oinarritzen diren erakunde konplexuetan prozesukako kudeaketak dituen mugen gainean.

Praktikaren kronograma:

- o Maiatzak 31: azkenengo eguna praktika irakasleari posta elektronikoz bidaltzeko.
- o Ekainaren 10ra arte: feedback-a irakaslearen eta ikaslearen artean.
- o Ekainaren 16ra arte: ikaslearen zuzenketa, irakasleak proposamenak egin ondoren.

ZIURTAPENA:

Ikastaroaren ziurtagiria lortu ahal izateko, gutxienez bertaratze presentzialak % 80 izan behar du. Asistentzia egiaztatzeko, bertaratutakoek orri batean sinatu beharko dute saioaren hasieran eta amaieran.

Gainera, prestakuntza-ekintza honen helburuekin lotutako ikaste-maila ebaluatzearen, honako hauek egingo dira:

- Ekintza-amaierako galde-sorta, ikas-helburuak noraino bete diren neurtzeko.
- Ikasle bakoitzaren praktika ebaluatuko da, tutoreen bitartez.

Aprobetxamendu-egiaztagiria jasotzeko, proposatutako probak gainditu beharko dira.

ZEIN HIZKUNTZATAN EMANGO DEN: GAZTELANIA

IRAKASLEAK:

Pako Serna Rodriguez, Osakidetza Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboko burua

ANTOLATZAILEA

Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa
(PRESTAKUNTZA@OSAKIDETZA.NET)

KOORDINAZIOA: Zerbitzu Erakundeko Etengabeko Prestakuntzako arduraduna

Prestakuntza Zerbitzu Korporatiboa / Giza Baliabideak Kudeatu, Antolatu eta Garatzeko Zuzendariordetza